



JOXE MARI ESPARZA ▶ EDITOREA ETA IDAZLEA

«Gu seduzitzeko gai ez izatea da Espainiak duen arazoa»

TOLOSA ▶ 'Cien razones por las que deje de ser español' liburua aurkeztuko du gaur tafallarrak

ARGUDIOAK ▶ «Ezinezkoa da zure borondatea ukatzen duen estatua maitatzea», azaldu du idazleak ▶ 2



Berdintasunaren bila, gazte nahiz heldu

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, hamaika ekitaldi izan ziren atzokoan bi eskualdeetan. Gazteentzat hainbat sentsibilizazio ekintza egin zituzten; esaterako, Iruran berdintasunaren astea antolatu dute ikastetxean eta Tolosan Idoia Sanchez ipuin kontalaria aritu zen —argaz-

kian—. Helduenek ere antolatu zituzten berdintasunaren aldeko ekintzarik. Bilgune Feministak, besteak beste, batzarra egin zuen herenegun eta atzo elkarretaratzera. Elduainen landareei buruzko hitzaldia izan zen eta Amezketan askarixoa ere egin zuten herriko emakumeek —argazian—. E. EZEIZA / N. URBIZU ▶ 5

TOLOSA ▶

Biga Enkantearen V. edizioa, Ferialekuan

Bihar egingo dute eta lau arraza ezberdin ikusi ahaliko dira ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Saharako herria ezagutzeko jardunaldiak

Hitzaldiak eta afariak izango dira esaterako; gaur hasiko dira ▶ 3

TOLOSA ▶

'Meando fuera del tiesto' lana gaur

Leidor aretoan egingo dute Kunka! taldearen eskutik ▶ 7

TOLOSALDEA-
LEITZALDEA ▶

Haizeak kalteak eragin digu bi eskualdeetan

Argindar mozketak eta luiziak izan dira, besteak beste ▶ 6

JOXE MARI ESPARZA ▶ EDITOREA ETA IDAZLEA

«Espainiaren arazoa da ez dela gai gu seduzitzeko»

'Cien razones por las que deje de ser español' liburua aurkeztuko du gaur 19:30ean Tafallako editoreak

ESTI EZEIZA

Joxe Mari Esparza Txalapartako editoreak bere lan berria aurkeztuko du gaur 19:30ean, Tolosako Kultur Etxean. Tafallako euskaldun berriak, lehendabiziko aldiz euskaraz azalduko du *Cien razones por las que deje de ser español* liburuaen mamia.

Hainbat eta hainbat arrazoi badituzu ere, zain da espainiar izateari uzteko arrazoi nagusia?

Amodio eza. Arrazoi historiko ugari dauzkagu: inbasioak, inposaketak... baina Historia guztia ahaztu daiteke Estatu integratzaile, begirunezko, progresista eta atsegin bat eratze-ko proiektua egonez gero. Espainiaren arazoa zera da; gu seduzitzeko guztiz ezgai dela. Ezinezkoa da zure borondatea ukatzen duen estatu bat maitatzea. Ezinezkoa ilustrazioan baino inkisizioan errotdua dagoen estatu bat maitatzea. Ez zaizkigu haien erregeak gustatzen, ezta haien guardia zibila, gotzainak, komunikabideak, intelektuala, epaileak, ezta haien politikoak. Nola biziko gara gorrotatzen dugun eta gorrotatzen gaituen jende horrekin? Horretarako dago dibortzioa. Ala, Iparraldetik Marc Legassek zioen bezala, tribortzioa.

Berriz zu espainola izatera itzultzeko aukerarik edo arrazoirik egon al liteke?

Ni berritox espainola izatea ezinezkoa da dagoeneko; berritox birjina ezin izan naitekeen bezala; ala esne-hortzak eduki ezin ditzakedan bezala. Gerta daitekeena zera da: Euskal Herria eta Kataluniaren indepen-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

dentziarekin Errege Katolikoek sortu zuten Estatu erreakzionario eta monarkikoa amaitzea. Orduan, akaso posible izango da euskaldunen eta Espainiako beste herrien arteko elkartasun estu bat. Herri nagusi eta askeen arteko maitasun askea.

Erraza al da Tafallan euskalduna zarela eta ez espainola, aldarrikatzea?

Gauza bat da gure gizarteak eduki dezakeen sentimendu euskalduna eta beste gauza bat bere espainiaritasun maila. Beharbada Nafarroak, hauteskundeetan esaterako, bere euskalduntasuna gutxiago adierazten du; baina bere espainiaritasun maila askoz ba-

xuagoa da. Horregatik beti «Navarra es España» errepikatzen dabilta, sentimendu espainolararen ahultasunaren berri badutelako. Historikoki espainiaritasuna oso ahula izan da, eta hori oso garrantzitsua da, etorkizunean edozein aukera libre uzten duelako. **Nafarroa hegoaldean zer pentsatzen du jendeak, euskaldunen inguruan, eta Euskal Herriarenean?**

Campionek zioen zuhaitzak moztzen diren lekuan euskal arimak ihes egiten duela. Nafarroako erriberak intelektual eta politikoko euskaltzale nabariak izan ditu, baina 1936ko giza-segak, frankismoak eta trantsizioak lurralde kultural

soildu bat utzi dute, pertsonalitate krisi nabariarekin. Baina, erabakitzen uzten zaion egunean, Zaragoza-Logroño eta Iruñea-Donostia ardatzen artean jendeak ez du zalantzarik edukiko.

Hauteskundeetara begira, zer garrantzia du euskaldun edo espainiar sentitzeak?

Hauteskundeak isla bat dira, besterik ez. Oso ezberdina da erreferendum bat planteatzea. Orduan jendeak alderdietako politikoan hautes-programak ezkatzen duten guztia baloratu beharko du. Orduan kontuak aterako dira eta baloratu non biziko garen hobeto, askatasunean ala dependetzia. Neur ditzatela gurea bezalako herri txiki eta garatuak abantailak; aldera ditzatela osasuna, hezkuntza, administrazioa... jendea ez da lerdia. Horregatik diote beldur izatela euskaldunok erabakitzeari.

Liburu hau irakurri duten euskaldunek bat egiten al dute zuk sentitzen duzunarekin?

Kritika oso onak jaso ditut, pentsatzen nituenak baino hobekiak. Hor dugu frogarik garbiena: bi hilabetetan lau edizio egin ditugu. Gainera, oso fenomeno polita bizitzen ari naiz: gazte jendeak oso gustura irakurtzen du, baita zaharrek ere. Nik uste dut hori seinale ona dela, independentziaren nahia eta espainiar hegemonismoarekiko nazka belaunaldi gutxietan hedatua dagoela adierazten duelako.

Liburu honekin zure 'papera' aldatu duzu; zain alde dago liburu bat argitaratzetik, liburu bat idazterara?

Ni editorea izan aurretik idazlea izan nintzen, hainbat liburu idatzi nituen. Horregatik animatu nintzen editore izatera. Orain, 600 liburu argitaratu ostean, idazteko beharra gutxitu zait. Gure katalogoan dauden hainbat liburu zoragarriekin identifikatuta sentitzen naiz. Horregatik, orain soilik gai batek sumintzen nauenean eseritzen naiz ordenagailuaren aurrean.

TOLOSA ▶

Bertso afaria antolatu dute Hirukidekoek

Hirukide eskolak, Hirukide Kulturala lelopean burutzen dituen ekitaldien baitan, gaur bertso-afaria antolatu du. Gure Kaiola elkartearen izango da, 21:00etatik aurrera. Bertan, Peñagarikano, Bixente eta Egoitz bertsolariak izango dira.

TOLOSA ▶

Kabül eta Toil-en kontzertua, gaur Bonberenean

Asteburu honetan musika izango da nagusi Bonberenean. Gaur 22:30ean, Kabül eta Toil taldeak ariko dira. Lehendabizikoak Hondarribiatik datoz bere azken diskoa aurkezteko. Toil, talde orre-tarrak berriz, *Hildak jaitzen* lana aurkeztuko du. Bihar berriz, Lisabö eta Stepi selekta Dja etorriko dira. Hauek ere 22:30etik aurrera ariko dira Bonberenean.

VILLABONA ▶

EHNA tramitatzeko aukera bihar

Villabonan bihar EHNA tramitatzeko aukera izango da, hileko bigarren larunbatero bezala. 11:00etatik 13:00etara egingo dute, Musika Etxean (Kultur Etxe ohia). Interesatuek hiru argazki, errolda agiria eta hamabost euro aurkeztu beharko dituzte.

TOLOSA ▶

Gaur, 'Eutsi' euskal filma entrenatuko da

Alberto Gorritiberea zinema zuzendariaren *Eutsi!* filma estreinatuko dute gaur, Euskal Herriko zinemetan. Asier Hormaza, Anjel Alkain eta Oihana Maritorea dira filmeko aktore nagusiak.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Iritzia. Albiste bakoitzaren inguruko iritzia eman dezakezue TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Asteasun emakumea behar da pertsona heldua zaintzeko. Telefonoa: 616 95 57 95.

Zaintzailea. Emakume bat behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizez. 943 69 82 73.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da tabernarako. Astelehenean ostirala, 15:30etik 22:30era, larunbat goizetan lana eta igandean jai. Deitu 650 48 79 34ra.

Sukaldaria eta zerbitzaria.

Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. 615 78 90 06.

Garbitzailea. Garbiketa, sukalde, jangela eta eskoletarako. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. 943 44 48 66.

SALGAI

Furgoneta. Volkswagen Transporterra salgai. Kontakturako telefonoak: 943 65 57 00 eta 685 73 68 81.

ELOLA
ALTZARIAK

Banatzailerik Ofiziala **bede**

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurrira.

Lizardi poeta, 2 - Tel.: 943 65 29 01 - TOLOSA

GUTUN@K ▶

Iragana eta etorkizuna

750. urteurrena zela-eta erakusgai egon zen argazki bilduman, *Esperientziak* izenburupean eginiko erakusketan hain zuzen, bertako argazkiak ikusterakoan gogora etorri zitzaizkion ziurrenik bati baino gehiagori alderdian jokaturiko paper garrantzitsuaz hara-

tago, gizartean ere euren paberaren aldarrikapenaren alde borrokatu zuten emakumeen keinu, borroka, arpegiak... Azken batean, emakume haiek askatasunaren eta eskubideen bermearren alde gure herrian eginiko lan eskergea etorriko zitzaion bati baino gehiagori une hartan.

Tolosako Batzokian 1933 urtean ospaturiko Biltzar Nazionalan izan zen gure aurre-

kariei eta aldi berean gure gizarako emakume guztiei gizonen zuten bozketarako eskubidea esleitu zionean alderdiak.

Gure eskerrik beroena helarazi nahi diegu borrokan jakin eta hala, berdintasunerako atarirako ateak ireki zitzaizkion emakume jeltzale haiei.

Egun, gu geu gara emakume izanagatik ditugun eskubideen defentsarako urratsak

ematen ditugunak eta beraz, argi ura mantentzen dugunak. Gure aldarrikapenak helarazi nahi dizkiegu erakunde guztiei, sindikatuei, enpresei,... baina argi dago lanaren zati handi eta garrantzitsu bat pertsonala eta intimoa dela. Eskatzen eta adierazten duguna sinetsi behar dugu, aitziak, ezer gutxirako balioko du lorpenak.

Gaur egun, guztiok eska-

tzen edo aldarrikatzen ditugu gure eskubideak, baina ez dezagun ahaztu urteak 365 egun dituela, eta horiek guztiak izan behar direla borroka eta aldarrikapenerako egunak.

Hezi ditugun gure seme-alabak eskubide nahiz bete-beharren orekan, eta horrek bermatuko digu garaipena.

OLATZ PEON, BEGOÑA TOLOSA,
YURRE PEÑAGARIKANO,
ITXAROPENA URKIOLA ▶ TOLOSA

ELKARTASUNA ▶

Saharako errealitatea gertutik ezagutzeko jardunaldiak

Hilabete guztian zehar hitzaldiak, afariak eta kontzertuak antolatu dituzte; gaur ekingo diote Aranburun apirilaren 14ra arte ikusgai izango den erakusketarekin

ERREDAKZIOA

Gaurtik hasita eta hilabete osoan zehar, Saharako herria gertuagotik ezagutzeko jardunaldiak antolatu dituzte gurean. Helburua saharar herriaren errealitatea ezagutzera ematea da. Horretarako, antolatzaileek «ezinbestekotzat» jo dute herritarren parte-hartzea eta tolosar nahiz kanpotar guztiak animatu nahi ditu ekintza ezberdinetan parte hartzera.

Hauek dira, banan bana zehaztuta, hilabete osoan zehar izango diren ekitaldiak:

GAUR

20:00. Argazki erakusketaren inaugurazioa, Aranburu jaure-



Saharar errepublikaren 30. urteurrena dela eta, Tolosako Udalak plaka bat jarri zuen joan den astean. E. EZEIZA

gian: Ander Guillenearen *Herri bat erbestean* eta Alberto Letamendiaren *Migraciones: sonidos desiertos*. Tolosaldea Sahararekin, Ereite elkarte multikulturala eta Tolosako Udaleko Kultura Saila antolatuta. Apirilaren 14ra arte izango da.

MARTXOAK 16, OSTIRALA

20:00. *Saharar egoeraren azalpen orokorra* hitzaldia, Fronte Polisarioko ordezkari baten eskutik, udaletxeko areto nagusian.

MARTXOAK 23, OSTIRALA

20:00. *Egungo egoera emakumeen ikuspuntutik* hitzaldia, Gurutze Irizar, Zahra Ramdán, Emakume sahararren batasun

nazionalako erlazio internazionalen ordezkariaren eskutik, eskutik, udaletxeko areto nagusian.

Ondoren. Saharar afaria: Kus-Kus-a (Tolosaldean bizi diren sahararrek prestatua) eta tea, Oargin. Bertan parte hartu nahi duenak ondorengo telefonoz zerbaki honetan eman behar du izena, martxoaren 20a baino lehen, 696 014786 telefonoz zerbaki.

MARTXOAK 30, OSTIRALA

20:00. *Hindu un sueño de libertad* dokumentalaren emanaldia (Emakume saria, 2003). Bi saharar emakume Tindouf inguruan kokaturik dauden saharar errefuxatu kanpamenduko egunerokotasuneko bizitza azaltzen dute. Kepa Gonzalez, dokumentalaren zuzendariak aurkeztuko du jardunaldia. Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian.

MARTXOAK 31, LARUNBATA

22:00. Omargia talde sahararra. Ondoren, Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe. *Portukoplak* izeneko lan berriarekin, Zerkausian.

Saharako maratoitik bueltan «oso gustura»

Joan den otsailaren 26ean korritu zen Saharako maratoia. Bertan munduko 22 herrialde-etako ordezkariak hartu zuten parte eta 12 euskaldun ere izan ziren bertan; horien artean Gregorio Eizagirre leaburuarra. «Oso esperientzia polita izan da; batik bat helmugara iristean, Saharako oihuekin hartu gintuzten korrikalariei», azaldu du.

Otsailaren 23an abiatu ziren Madrildik Tindouf-era 350 lagun inguru. Hurrengo egunerako guztiak euren kanpamenduetara heldu ziren, hiru taldetan banatuta. «Izen-ematea eta burutu genituen han; trukean, zapi tipiko bat, kamiseta bat eta dorsala banatu zitzaizkion», dio Eizagirrek.

Igandean, inguruko bizimoduak ezagutzeko aukera izan zuten eta afaria egin zuten elkarrekin. «Pasta eta fruta jan genuen». Hurrengo egunean guztia prest zegoen lasterketarako. Lau ibilbide ezberdin antolatu zituzten; maratoia, maratoi erdia, 10 kilometro eta 5 kilometro. Luzeraren arabera, lasterketak irrtetzen hasi ziren goizean goiz, eta guztiek Es-mara herrian bukatu zuten. «Azken kilometroa herrian barna egin genuen eta emotiboa izan zen; izan ere, herritar guztiak gure zain zeuden».

Antolaketa gainean, «oso txukuna» zela aitortu du Eizagirrek, «seinalizazioekin eta ura banatuz».

Lau probetan ere euskaldu-



Saharako maratoiaren irudi bat. HITZA

nek marka onak eskuratu zituzten. «Usune Tena andoaindarra, esaterako, bigarren emakumea izan zen maratoi

erdian». Salah Hmaton Amaidan saharararren kasua ere gorapatu du Leaburukoak. Bigarren egun izan zen maratoi er-

dian. «Marokoko selekzioarekin bi podium lortu zituen Saharako lurralde okupatuan bizi zen gazteak, Parisen eta Marsellan. Bertan zegoela, Saharako kamiseta atera zuen eta berritoki kanpamentuetara eramane zuten, selekzioetik bota zuten eta diru laguntzak kendu zitzaizkion; sahararrentzat ikonoa da».

Hori dela eta, sari banaketan omenaldia egin zioten gazteari, beste irabazleekin batera.

Bide batez, deia luzatu du Eizagirrek «Espainiako estatuen jarrerarekin eta ezinbestekoa baitu orain Saharako herriak gure laguntza, gure laguntzarekin soilik aterako baitira aurrera. Bestalde, Tolosako Udalarri, Shanti Kiriolak, Aralar, Tolosa CF eta Oriako txirridulari taldeei eskerrak luzatu nahi izan dizkie. ◀

AMEZKETA ▶

Ezker abertzaleak galdetegia banatu du herriari buruz

Amezketako ezker abertzaleak, bilera batzuk egin eta gero, galdetegi bat banatu du herrian zehar, diagnosi bat osatzeko. Datorren astezkenarako erantzunak jasoko dituzte udaletxeko atarian jarri duten postontzi batean. Aldez aurretik eskerrak luzaten dituzte parte-hartzearengatik.

ANOETA ▶

El Color De La Duda gaur, Saloon Radikal Biker-en

El Color De La Duda talde nafarrak Anoetako Saloon Radikal Biker aretoan joko du gaur, 23:30ean, Ardilatxa Tour Xpression!!! zirkuitoaren barnean. Taldeak hainbat bertsiio egiten ditu zuzenean eta M-CLAN talde famatuaren antza nabaria dauka, antolatzaileen esanetan. Kontzertua doakoa da.

VILLABONA ▶

Aritza aldizkariaren 16. zenbakia eskura

Aritza kultur taldeak bere hilaletzekariaren 16. zenbakia argitaratu du. Aldizkari guztia Nafarroa, *euskal estatua 1150-1200* gaiari buruz da. Aldizkaria eskuragarri dago doan Villabonako Larrea, Labezain, Ogigoxo eta Kixubi okindegietan, Sahatsa belarrendean eta Zizurkilgo Ogizuri okindegian.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Aukera berria blues musika dastatzeko

V. Blues Musikaren Jaialdiaren baitan, lau talde ariko dira bihar gauean Aurrera, Atxulondo eta Egarri tabernatan



King Bee taldeak iaz emandako kontzertuaren une bat. A. ETXAN IZ

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Blues Musikaren Jaialdia bere bosgarren edizioa iritsi da. Bihar gauean lau talde ikusteko eta entzuteko aukera izango dute herriko hiru tabernatan.

Stay Blues. Jaialdia irekiko du. Aurrera tabernan joko dute 22:30ean. Hiru kide dira: Alvaro Fernandez (aho-soinua eta gitarra), Fernando Beira (baxua) eta Paul San Martin (pianoa eta ahotsa).

Juan Bourbon, Juan Scotch & Juan Beer. Bigarren kontzertua emango dute, 00:00etan hasita, Egarri tabernan. Bitxia da taldearen eraketa instrumentuei begiraturaz gero: kontrabaxua, pianoa, aho-soinua eta bateria jotzen dituzte alkoholdun abizenak dituzten musikari hauek.

Speak Low. Atxulondo tabernan emango dute kontzertua, 01:30etik aurrera. Funky eta jazz doinuak uztartzen dituzte. Julian Maeso hammond orga-

no-joleak, Antonio Pax baterijoleak, Jose Funko gitarra-joleak, Martin Garcia saxofoi-joleak eta David Garcia perkusionistak osatzen dute taldea.

King Bee. Iaz egon ziren jaialdian eta aurten bueltan dira. Aurrea tabernan egingo dute emanaldia, 03:00etan hasita. Alvaro Bouso ahotsa eta gitarra, Emilio Arsuaga aho-soinua, Carlos Arsuaga bateria, Pablo Sanchez-Parra gitarrak eta Diego de la Torre baxu-jolea dira taldekideak.

IMANOL EIZMENDI ▶ ANTOLATZAILEA

«Talde ugari agertu da interesatuta jaialdian parte hartzeko»

I. Garcia ▶ Udala eta Zizurkilgo tabernariekin batera, antolatzaile lanetan aritu da Imanol Eizmendi aurtengo jaialdian ere.

King Bee taldeak erreprekatu egiten du aurten.

Iaz beraiek ireki zuten jaialdia. Inpresio oso ona eman zuten. Musika freskoa egin zuten, zu-

zena. Aurten jaialdia itxiko dute giro onarekin amaitzeko. **Jaialdiaren maila mantentzen da?**

Egia esan, aurten talde ugari agertu da interesaturik jaialdian parte hartzeko. Hemen josten duenak itzuli nahi izaten du eta hori seinale ona da. Talde ezberdinak ekartzen saia-

tzen gara, blues klasiko-klasikoa ez du izan behar. Aurten funky eta jazz kutsu bat izango du jaialdiak. Taldeei dagokionez maila handikoak dira. Juan Bourbon... taldeak Cazorlako blues jaialdi entsutetsuan ezusteko taldearen saria jaso zuen. Stay Blues iaz Donostia-ko Jazzaldian izan zen eta kritika onak jaso zituen.

Zer esango zenieke oraindik jaialdia ezagutzen ez dutenei?

Blues musika ezberdina da zuzenean entzutea. Askok irabazten du. Kuriositatea duenak aukera ederra du horretarako jaialdian. ◀

ORENDAIN ▶

Ekintza planari buruz herri batzarrera deitu du Udalak

ERREDAKZIOA

Herri batzarrera egingo dute bihar, 16:30ean udaletxean, Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela eta. Osatu den ekintza planaren lehen zirriborroa aurkeztuko dute bertan eta herritar guztien artean proposatu dituzten ekintzei lehentasunak izendatzeko asmoa dute bileran. Ekintza plan horretan mota guztietako ekintzak atera dira: biztanlegoa, etxebizitzak, ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia, ingurumena... El-karrizketa bidez lorturiko herritarren iritzia eta herri batzarraren esandakoak ere kontuan hartuz osatu dute.

Ekintza plana «erabat irekia da» eta Udalak «herritar guztien ekarpenak» jaso nahi ditu. «Herriaren etorkizunerako plangintza definitu nahi denez, oso garrantzitsua da herritar guztiek parte hartzea», gaineratu dute Udaletik. Bilera aurretik ekintza plana irakurri nahi duenak, ikusgai du udaletxean bertan. Interneten ere zintzilikatuta dago www.tolosamendi.net/agenda21 orrialdean.


ANOETA ▶

Zuhaitz Eguna eta Eriz Magoa gaur Kultur Astean

ERREDAKZIOA

Anoetako Kultur Astean gaur Zuhaitz Eguna egingo dute. Horrela, 15:30ean zuhaitz landaketa egingo dute Ikastolako LH5 eta LH6 mailako ikasleek ur biltegiaren inguruan. Horren ondoren merienda emango zaie. Jan eta gero, haurrek Eriz Magoaren emanaldia ikusi ahaliko dute 18:30ean udaletxeko multimedia gelan.

Bihar ere izango da ekitaldirik haurrentzat. 16:30ean zirko eskola antolatu dute plazan: bolak, uztaiak, diabloak, malabareak, orekarako makilak, ruloak eta abar... Ondoren, 18:30ean, txokolatada plazan, Ateaga Elkartek prestatua.



Salgai (Tolosa) lurrarmendi uzoan etxe zoragarria. 2 solairu. Aparta. **Salgai (Tolosa)** Santa Klaran pisu eraberritua. Kanpoaldera. Sartzeko prest. Ikuspegiak Uzturrera. **Salgai (Anoeta)** Pisua. Kanpoaldera. Terraza galanta eta eguzkitua. **Salgai (Tolosa)** Alde zaharrean estreinatzeko guztiz eraberritu ostean. Eskaratz eta eskailerak eraberrituak. **Salgai (Berastegi)** Eraikuntza berriko etxebizitzak. Kalitatezko materialekin eginak. **Salgai (Oion)** Arabar errikoa. Logroñoetik 5 km-tara. Oporretarako pisu egokia. Bizitzera pasatzeko prest, aparta. 1.54.761 euro. 943 69 71 96 • 675 705 268 Korreo Kalea 50

LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar Urrope plaza • Leaburu Tel.: 943 67 15 48

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA ▶

Berdintasunaren bila, bai helduak eta baita txikiak ere

Bi eskualdeetan antolatutako ekitaldiak aurrera eraman ziren, Tolosako zezen plazan egin behar zen murala ezik



Bilgune Feministako kide batzuk, egindako batzarraren ondoren. HITZA



Landareei buruzko hitzaldia Elduainen. ASIER IMAZ



Iruran, Marimi Ugalde alkateak sariak ematen. HITZA

IDOIA SANCHEZ ▶ IPUIN KONTALARIA

«Ipuin asko barneratuta dauzkagu, eta horietatik ateratzea kostatzen da»

Idoia Sanchezek (Tolosa, 1962) lau urte pasatxo daramatza etxetik kanpo ipuinak kontatzen. Atzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna izanik, ipuin bereziak kontatu zizkien 4 eta 9 urte bitartekoei Tolosako Haur Liburutegian.

Duela urte gubdi arte ipuinetan emakumea beti gaiztoa edo erdi tuntuna izaten zen. Aldatzen ari da?

Bai, nik uste baietz, baina hori gure etxean eta gure buruarekin landu behar da ere: ipuin asko barneratuta dauzkagu, eta horietatik ateratzea kosta egiten da. Eta nahiz eta ados ez egon hauekin, nahi gabe ba-

tzuetan kontatzen hasten gara (baina zer egiten ari naiz?).

Eta betiko ipuinak?

Betiko ipuinek beste gauza on batzuk lantzen dituzte ere bai. Batzuen helburua zein den nik ez dakit, baina zuk nahi duzun edukina lantzen badu, aprobe-txa daiteke. Lortu behar dena da, umearengan kezka hori sortzea da: ipuinan aitak hau egiten du, amak beste hau, zergatik...

Ipuin matxistekin zer egin?

Denetik dago. Gu ere desberdinak gara, eta gure artean ere denetik dago eta gara. Asko, lehen bezala egongo lirarteke, ezer aldatu gabe. Baina argita-

letxeek ere kontuan izango dute argitaratzen dutenarekin. Baina kontzientziatzen ari gara-ela uste dut: bestela, hau panorama!

Gurasoek material ona erosteko aukera dute?

Bai, material ona dago. Ez ezagutzen gero ere, liburutegietan materiala hartzeko bideratu edo, aholkatu egin diezazuke-te. Tolosako Haur Liburutegian berdintasuna bereziki lantzen dituzten ipuinen apal bat egokitu dute, adibidez.

Berezia gaur, zergatik?

Emakumearen Eguna zelako: berdintasuna lantzen duten ipuinak kontatu nituen. ◀

NEREA URBIZU

Atzoko egunean zehar eskualdeetan emakumeek hainbat ekitaldi egin zituzten, Emakumearen Nazioarteko Egunarekin loturikoak denak: elkarretaratzeak, hitzaldiak...

LAB sindikatuak elkarretaratzea egin zuen eguerdian. «Emakume langileok subjektuak gara gure herriaren bilakaeran eta subjektuak izan nahi dugu, eskubide eta aukera berdintasunean, gatazka politikoaren gaindipena ekarriko duen prozesuan: aktiboki parte hartuz eta erabakiz». Honen aurrean, «instituzioei puntu ezberdinetan aldarrikapenak exijitu» zituzten. Horrez gain, mugimendu feministak egindako elkarretaratzearekin bat egin zuten.

Amezketan merienda egin zuten: duela 26 urte hasi zen elkartzen taldetxo bat. Josefá Tolosak esan zuen bezala «irratian entzun nuen lehen aldiz Emakumearen Eguna ospatzen zela eta geroztik, etxean amarekin ospatzen genuen. Duela urte asko, 30etik gora».

Tolosaldeko Bilgune Feministak batzarra egin zuen eta bertan, «Euskal Herriko emakumeon eskubide gutuna aurkeztu genuen». Ondoren, «eztabaidan sartu ginen, gure inguruan somatzen ditugun eskubide urraketak zerrrendatu eta horiei aurre egiteko dagozkien eskubideak zein izango lirarteke azalduz. Eztatxak interesgarria izan zen», gehitu zuen Eider Elduainenek. Murala, eguraldi desatsegina zela eta, bertan behera geratu zen, baina gaur arratsaldean egiteko asmoa dute.

Elduainen loreei eta landareei buruzko hitzaldia izan zen, 15 bat emakume joan baitziren.

Jakoba Errekondok zuzendu zuen Kultur Etxean egindako hitzaldia.

Leitzan *Princesas* filma ikusi zuten arratsaldean Gaztetxean, eta ondoren, 20:00etan, elkarretaratzea eta afaria ere egin zituzten.

Txikitatik, berdintasuna

Gaur egun, arlo askotan emakumeari gizartean dagoekin lekua eman nahian egiten dira, eta txiki-txikitatik hori irakatsi nahi zaie. Honen kasu argia, atzo, Tolosako Haur Liburutegian egin zen ipuin kontaketa izan zen. Idoia Sanchez ipuin kontalaria izan zen bertan, 4 eta 9 urte bitartekoentzat proposak diren ipuinak kontatzen. Hauetan, berdintasuna bezalako eskubideak landu zuen tolosarrak.

Irurako ikastetxean, berriz, aste batez berdintasunaren inguruko jardunaldi bereziak egin dituzte, iaz bezala: berdintasunarekin loturikoak, ipuin kontaketak rola aldatuz, marrazki lehiaketa, egunkarietatik ateratako informazioa bil-tzen...

«Asko hitz egin dugu emakumeari buruz, eta berdintasunari buruz orokorrean», ziurtatu zuen Josune Aiestaranek, Irurako ikastetxeko zuzendariak. Arratsaldean, berriz, udaletxera joan ziren, eta bertan Marimi Ugalde alkateari aste honetan zehar egin zutena komentatu egin zitoten. Batez ere, bertan dagoen erakusketaz aritu ziren: hauetan umeek helduak direnean izan nahi dutena irudikatuta zegoen. Ondoren, sari batzuk ere banatu zituzten ple-no aretoan, mailaz-maila anto-latuta.

OHARRA ▶

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK gaur eta hurrengo egunetan Emakumearen Nazioarteko Egunarekin loturik dauden ekitaldiak eta izango direnak atzoko alean argitaratu zituen.



LAB sindikatuak elkarretaratzea egin zuten Tolosan. HITZA

EGURALDIA ▶

Eguraldi zuzena, ondorio okerrak

Argi indar mozketak eta luiziak izan dira, besteak beste euriak eta haize bolada indartsuek sortutako kalteak

ASIER IMAZ

Garaian garaiko eguraldia ego-
kia den bezala, ura eta sua be-
launetik behera nahi izaten
dira esaera zaharraren arabe-
ra. Lehena garaikoa denik ezin
esan, bigarrean ura aldiz
neurritz kanpo dabil. Errekaren
belaunak herenegun gaintitu
zituene euriak eta atzo maila
guztiak gaintitzeaz zeuden To-
losaldeko eta leitzaldeko
ibaiak.

Herenegun sartu zen borras-
ka; euria, kazkabarra, trumoi-
a eta batez ere haize bolada bor-
titzak utzi ditu gure bi eskual-
deetan. Negua amaitzeaz da-
goen honetan, eguraldiak ara-
zoak sortu ditu errepide zein
etxeetan: zuhaitz hautsiak, ar-
bolak, argi indarra, kobertura
gabeko gunek...

Leitza izan da arazo gehien
izan dituen herria. Udalaren
esanetan, atzokoan «Osasun
Etxe inguruan erortza edo luizi
bat izan zen». Manuel Lasarte
kalean berriz, estoldak gainez-
ka egin eta ura garajeetara sar-
tuko zen beldurrez, udal langi-
leek aritu behar izan zuten la-
nean. Bestalde, Leitzalar
mendiko bide berrian, euria-
ren eraginez ura bide gainera
atera zen eta bertatik behera
eginez, parean topatuko pi-
nuak berarekin eraman zituen.
Ekaitzaren eraginak argi indar-
ran ere eragina izan zuen, bi
aldiz argirik gabe geratu zire-
larik.

Leitzako Karrape irratiak ja-
kinarazi zuenez, atzoko egune-
an ezin izan zuten irratsaiorik
aurrera eraman, antenan ara-
zoak eragin baitzituen tru-
moiak.

Berastegi eta Leitza artean
berriz, A-15ean, Pagozelai in-

guruan, auto istripu baten on-
doriotz, errepidea itxirik egon
zen une batez. Izan ere, atzo eta
herenegun, errepidean euriak
gain haizeak ere eragina izan
zuen. Amaroztik Txaramako bi-
dean adibidez zuhaitz bat erori
zen errepide erdira, bi karrilak
bete-bete harrapatu zituelar-
ik. Ez zen zauriturik izan,
nahiz eta Tolosako bizilagun
baten autoa adarrek ukitu zu-
ten. Zuhaitzen batzuk ere herri
erdian haizeak zurtoinetik
hautsi zituen atzokoan.

Alkizaren argi indarrekin
izan zituzten arazoak, asteaz-
ken gaueko 21:00etatik atzo
arratsaldeko 16:00ak arte argi-
rik gabe baitziren.

Albiztur inguruan berriz, lui-
ziak izan ziren albiste atzoko-
an. Errepide ertzeko mendi lur-
rak euriaren ondorioz, karril
bat oztopatu zuten. Arratsalde-
an oraindik itxirik zegoen To-
losarako norabidea, nahiz eta
seinaleen bidez arazorik ez
egon zirkulaziorako.

Hurrengo egunei dagokie-
nez, gaur onera egingo omen

du eta asteburuan aldiz, uda-
berri ukituko eguraldia itzuliko
omen zaigu. Garaian garaikoa-
ren zain jarraitu beharko dugu
martxoak 21a iritxi arte behin-
tzat. Udaberriarekin batera
orain artean neguan bizitako-
ren arabea, eguraldiak zuzen-
tasuna berreskuratuko baitu.



Belauntza. «Haizeak edo norbaitek» botata
inauteri konpartsa goizean goiz Berastegi erreka-
ko urretan agertu zen. Jabeetako batek, ea lehorretik
nola erori zen galdetzen zion bere buruari. A. IMAZ



Albiztur. Tolosarako norabidean luizia izan zen
atzokoan. Errepidearen norabide bat itxi egin behar
izan zuten gune honetan, nahiz eta zirkulazio
arazorik ez sortu. A. IMAZ



Tolosa. Txaramako bidean haizeak zuhaitza bota zuen lurrera. Auto
bat harrapatu zuten adarrek eta gidaria onik irten zen. A. IMAZ



Lizartza. Euriteen ondorioz, Araxes ibaia gainezka zetorren atzokoan
Nafarroatik Gipuzkoarako bidean. A. IMAZ

hilberriak ▶



Jose Luis Portugal Alonso

Maitia nun zira
nik ez zaitut ikusten
ez berririk jakiten
nurat galdu zira

Izan zinelako, garelako
Mila esker

Senideak

oharra ▶ Hileta elizkizunak larunbatean, arratsaldeko 18:00etan, Kaputinoetako elizan izango dira

ERRENTERIA, 2007ko martxoaren 9a



HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSA ▶ EKONOMIA

Biga Enkantearen bosgarren edizioa bihar, Ferialekuan

Lau arraza ezberdinetako bigantxak ikusi ahalko dira eta osotara, 94 izango dira enkantean jarriko dituztenak



Bigantxak, 2004. urteko enkantean. O. ESKITXABEL

NAIARA GARZIA

Udaberriaren helduerarekin batera eta urtero bezala, larunbat honetan Tolosako Ferialekuan Biga Enkantea egingen dute. Aurtengoa, bosgarren edizioa izanen da.

Udazkenean urtero egin ohi den ganadu azokaren jarraipena izan ohi da udaberriko sarrerakoa. Juan Ramon Ibarbiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko albaitariak, azaldu

duenez, «udazkeneko azokan enkanteaz gain lehiaketa ere egingen dugu, hau da, arraza bakoitzeko behi dotoreena aukeratzeko dugu. Udaberrikoan baino arraza gehiago izaten ditugu, baina garrantzitsuenak udaberrikoan izaten diren lau arrazak dira».

Biharko enkantean bigantxak bakarrik egongo dira, umatu ez direnak, alegia. Osotara, lau arrazatako bigantxak jarriko dituzte ikusgai: frisia-

rrak, piriniarrak, blondak eta limusinak. «Liburu genealogikoan inskribatuta daude bertara joango diren bigantxa guztiak. Honek arraza puruak direla esan nahi du eta osasun aldetik ongi aztertuta daudela».

Ganadua 08:00etarako Ferialekuan izanen da. «Hartara baseritarrek patxadaz begiratzeko denbora izanen dute». Bigantxak erosteko saioa 11:00etan hasiko da eta bana-

ka-banaka salduko dira animaliak. Bigantxa bakoitzeko dirurik gehien eskaintzen duenak, horrek eramango du etxera. «Guk ohiko salmentak egin ordez, beti enkanteak egingen ditugu. Administrazio moduan jokatzeko erostle bat baino gehiago daudenean, enkantea egingen ez badugu, zeini saldu?», dio Ibarbiak.

Irteerako preziorik baxuena 1.000 euro ingurukoa da, eta garestiena, 2.000 euro ingurukoa. Erosleak animatzeko diru laguntzak ematen dituzte, bigantxaren adinaren arabera. «8-12 hilabete bitarteko bigantxarengatik 150 euro ematen ditugu, 12-18 hilabete dituen batengatik, 180 euro, eta 18 hilabetetarik gora duen bat erosten duenari, 210 euro».

Arrazen jatorria

Frisiar arrazako 30 bigantxa eramango dituzte Ferialekura, 18 piriniar, 9 blonda eta 37 limusin. Bigantxen jatorriari dagokionez, dagoeneko nazioarteko arrazak izan arren eta Euskal Herrian urte asko eman arren (larunbatean Ferialekuan ikusi ahalko direnak Gipuzkoako baserrietan haziak dira), frisiar arraza, adibidez, jatorriz holandarra da eta esneerako erabiltzen den bakarra da. Blonda, Akitaniakoa eta Limusina, Limogesekoa (Frantzia). «Piriniarra da jatorriz hemengoa den bakarra».

Gipuzkoa mailan Tolosako udazkeneko eta udaberriko enkanteak garrantzitsuak dira. «Udazkenekoak iaz 37 urte bete zituen, eta hasieran itinerantea izan arren, gero beti Tolosako Ferialekuan egin dugu, izan ere, nekazaritzako diruarekin egindako eraikuntza bat da eta hori da bere helburua».

LEITZA ▶

Kokak Bengoetxea ordezkatzeko du etzi

N. GARZIA

Juantxo Kokak Bengoetxea VI.aren tokia hartuko du etzi Bergaran jokatzeko duten finalaurrekoan. Leitzarrak oraindik ezkerreko sorbaldako mina dela eta Binakako Txapelketako azkeneko saioan parte ez hartzea erabaki du.

Aurreko asteburuan min hartu eta gero Bengoetxea VI.aren parte-hartzea zintzilik egon da aste osoan zehar. Atzo Bergaran egin zuten pilota hautaketan Bengoetxea VI.ak proba arin bat egin eta oraindik sorbaldan mina sentitzen duela adierazi zuen. Patxi Ruiz ere lesionatuta dagoenez, Koka eta Beginok jokatzeko dute Xala eta Eulateren aurkako azkeneko norgehiagoka etzi, Bergarako pilotalekuan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garrarioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ KULTURA

'Meando fuera del tiesto' antzezlanak aurkeztuko dute gaur, Leidorren

Sortu berri den Kunka! produkzio-etxearen lehenengo antzezlanak 20:00etan hasiko da

N. GARZIA

Gaur, 20:00etan, Kunka! produkzio-etxearen kide diren Jo-sean de Miguel, Eloi Beato eta Gorka Aginagalde aktoreek *Meando fuera del tiesto* antzezlanak aurkeztuko dute Leido-

rran. Antzezlanak 30 sketchez osaturik dago eta «umore garrantzatsua, salbajea eta ospin-tsuan» oinarrituz, gai ezberdinak jorratuko dituzte.

Gizarte segurantzaren, futbola, lan merkatuaren egoera, telefono mugikorren mundua edo

zirkulazio legeak eta bikoteen arteko harremanak, besteak beste, izango dira gaur Leidorren jorratuko dituzten gaiak. Honetaz gain, historiari ere beraien erreparatu pertsonala egingo diote, pertsonaia zehatz batzuei, bereziki: Jesus eta lapurren arteko elkarrizketak ezagutzera emango dituzte, erregea eta bere bizkartzainen artekoak, edo Hitlerrek eta Francok Hendaian mantendutakoak.

Kunka! produkzio-etxearen lehenengo antzezlanak gaur, eta adin guztietako jendearekin zuzenduta badago ere, normalean antzerkirik ikusten ez duten 20-30 urte bitarteko

gazteak erakarri nahi dituzte bereziki.

Eszenografiari dagokionez, antzeztokia ia hutsik egongo da, hiru aulki besterik ez baituzte izango. Antzezleek traje beltzak eramango dituzte eta koloredun gorbatek bizitasun puntu bat jarriko dute.

Kunka!-k hasieratik beste produktora-etxeekiko ezberdintasun argi bat ezarri du. Jendea erakartzeko, antzezlanak aurkeztu behar duten herrian performanceak egingen dituzte, kalean, *Kunka! bai, aspertu ez!* lelopean. Tolosan ere izan ziren, joan den asteartean, eta Triangulo plaza antzeztoki batean bilakatu zuten.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. *Ogirik gabe etorri zen semea* antzezlanaren izango da Zaharren Biltokian 22:30ean, afariaren ondoren. Bakarrizketa honek ama-seme arteko harremanak jorratzen ditu.

Tolosa. Kabul eta Koliflawers musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Tolosa. Kunka! produktorak *Meando fuera del tiesto* komedia aurkeztuko du Leidorren 20:00etan. Eloi Beato, Gorka Aginagalde eta Josean de Miguel aktoreek 30 esketx egingo dituzte.

Tolosa. Jose Mari Esparzak hitzaldia eskainiko du gaur 20:00etan, Udaletxeko pleno aretoan. Bertan, *Cien razones por las que deje de ser español* liburuarren mamia agertuko du.

Tolosa. Guillermo Azcarate Maturanak *Erantzunak pertsona gorrei eta familiei* hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean 19:00etan.

Tolosa. Laskorain Ikastolaren 40. urteurrenaren denez, berriro ere ikasle ohien afaria antolatuko dute. Maiatzaren 19an izango da, Tolosako Ferialekuan. Afariaren antolaketa bilerak irekia antolatu dute, hilaren 13an, 19:00etan Kultur Etxean.

Zuzurkil. Emakume sahararren bizimodua izango da aztergai *Hindu un sueño de libertad* ikus-entzunezkoa eskainiz 19:00etan Atxulondo kultur etxean eta ondoren Kepa Gonzalez zuzendariarekin mahai-ingurua eginez.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Asteko onena*.
 21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Batutari adi

TOLOSALDEA ▶ Loatzo musika eskolako hamar ikaslek osatzen duten Tempus taldeak parte hartuko du bihar Elgoibarko Talde Instrumentalen Lehiaketan

ERREDAKZIOA

Loatzo musika eskolako Tempus —latinez denboran esan nahi du— taldeak parte hartuko du bihar Elgoibarko Talde Instrumentalen Lehiaketan. Eskolatik azaltzen dutenez, «maila handiko lehiaketa izaten da». Aurten bigarren aldian izango da parte hartzen dutela. «Lan handia egin dugu», dio Maria Jesus Arratibel taldeko zuzendariak. «Ilusio handiarekin goaz ahal dugun gehien gozatzera. Guk gozaten badugu, seguru entzulegoak ere gozaten duela».

Guztira hamar musikarik hartzen dute parte taldean. Pianoa jotzen Ainhoa Barandiaran (Villabona); bibolinarekin Miren Jauregi (Villabona), Miriam Quinn (Villabona), Leire Berasaluze (Aduna) eta Lara Sardon (Villabona); eskusoinuarekin Joanes Segurola (Villabona) eta Kristina Urbietta (Asteasu); eta zeharkako flautarekin Itziar Eizmendi (Villabona), Izarne Maiz (Villabona) eta Sheila Diatta (Villabona). Bi abesti prestatu dituzte: Nacio Herb Brown-en *Singing in the rain* eta Terry Gilkyson-en *The bare necessities*.



Tempus taldea osatzen duten hamar musikariak, entsegu bat hasi baino lehen. I. GARCIA

berriaren eskutik



txandalak



Neurrria	2	4	6	8
Adina	0-2	2-4	4-6	6-8
Haurraren luzera cmetan	80-90	98-104	110-116	122-128

36€

Egin eskaria amaitu baino lehen
943 304 345
 edo harpidedunek
www.berria.info


Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

OHARRA: biltegikoak bukatu arteko eskaintza

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iruñe Goikoetxea (Tolosa).
 Gaur urtebete. Muxu asko familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Odei Jauregi Zaldua (Tolosa).
 Zure 1. go urtebetetean amaboa, aitaba eta familiaren partetik.